


## KANALAK

Argi dago produktu batek arrakasta izateko ahalik eta pertsona kopuru handienera iritsi behar duela. Horretarako, kalanak erabiltzen dira. Egia da enpresa-komunikazioko kanal asko erabiltzen direla, eta guk batez ere honako hauek erabiliko ditugu:



Sare sozialak gaur egun oso garrantzitsuak dira. Lan-munduan, enpresa askoren parte izatera iritsi dira, oso erraza baita komunikabide horien bidez komunikatzea. Horregatik, sare sozialen bidez informazio asko argitaratuko dugu, instagram, twitter eta facebooken alegia, guztiek gure proiektuari buruzko informazioa izan dezaten. Gainera, uneoro ibiliko gara informazioa eguneratzen erabiltzaileek gauza berriak gehitu ditugula edota berrikuntzaren bat gauzatu dugula jakin dezaten. Instagramen eta twitterren **trynoww\_** dugu izena, eta facebooken berriz, **trynoww3**.

Sare sozialez gain, webgune bat ere sortu dugu, eta bertan bezeroekin harremanetan jartzeaz gain, sare sozialetan argitaratzen dugun informazio berbera ere bertara igoko dugu, zenbait erabiltzailerentzat erosoagoa baita webgune baten bitartez informazioa jasotzea, agian sare sozialak ez baitituzte gustuko.

Aplikazioa ezagutzera ematea hasieran zaila izango da, eta lehen une horietako zailtasunei aurre egiteko, gure aldetik esfortzu guztiak jarri behar ditugu. Horretarako, informazio saio batzuk antolatzea ideia bikaina dela deritzogu. Saio hauek online ematea erabaki dugu, gure webgunearen bitartez, horrela jende gehiagorengana iritsi gaitezkeelako.

Sare sozialetan ez ezik, kaleetan zehar ere kartelak txertatuko ditugu non informazio guztia eskuragarri egongo baita, gehien bat pertsona adinduentzat, karteletan arreta gehien jartzen dituztenak baitira. Kartelak Espainia osoan zehar egongo dira, hiri garrantzitsuenetako puntu turistikoetan, esaterako Bilbon, Sevillan, Madrilan, Bartzelonan... Kolore biziekin apainduko ditugu, bisualagoak eta erakargarriagoak izan daitezen, eta letra handiarekin, ikusgarriak izan daitezen. Kartelen ekoizpenerako "Maddon" publizitate enpresa donostiarraren zerbitzuak kontratatuko ditugu.

Hori gutxi balitz, INDITEX eta Nike, Adidas eta Puma kirol markek guri publizitatea egiteko akordioetara iritsi gara, haien produktuak probatzeko aukera emango baitugu geure aplikazioan eta beraz beraientzat ere irabazia izango da Trynow aplikazioaren inguruko publizitatea egitea.

Modu berean, iragarkien bidez ere salduko dugu Trynow, “Eitb” eta “RTVE” kateetan hain zuzen ere, geure erabiltzaileek haien etxeko sofatik aplikazioaren berri izan dezaten, kalera irteteko beharrik izan gabe.

Iragarkien gaiari berriro ere helduz, modaren esparruarekin zerikusia duten beste aplikazio batzuekin harremanetan jarri ostean, akordio batzuetara iritsi gara eta haien aplikazioetan Trynow-ren iragarkiak txertatuko dituzte, guk geure aplikazioan “21 buttons”, “Vinted” eta “Depop” aplikazioen iragarkiak txertatzen ditugun bitartean. Horrela, guztion artean, ezagutzera emango ditugu aplikazio guzti hauek.

Publizitate kanalekin amaitzeko, influencerrak ditugu. Haiek haien sare sozialen edota Youtubeko kontuen bitartez Trynowren inguruko informazioa emango diete haien jarraitzaileei, eta modu horretara geure aplikazioa askoz ere gehiago zabalduko da herrialdean zehar.

Salmenta kanalei dagokienez, App Store eta Play Store izango dira gure kasuan gure aplikazioa saltzeko beharko dugun kanala. iOS eta Android sistema operatiboetan App Store eta Play Store aplikazioei esker, hurrenez hurren, eskuratzen dira gainontzeko aplikazioak; beraz, bertatik salduko dugu Trynow gure erabiltzaileek eros dezaten. Esan beharra dago geure proiektuarekin ez dugunez produktu material bat saltzen, kasu honetan banaketa kanalen beharrik izango.

Komunikazio kanalei helduko diegu azkenik. Horretarako, aplikazioaren inguruan sortzen diren zalantzak webgunearen bidez argituko ditugu. **www.trynow.com** du izena, eta mundu guztia sar daiteke orrialdera, proiektuari buruzko informazio gehiago izateko. Gainera, edonork idatzi ahal izango dituen galderen atal bat egongo da, eta beste bezero batzuek ere irakurri ahal izango dituzte, egunero galdera berak errepika ez daitezen edo zalantza berberak egon ez daitezen. Beste komunikatzeko modu bat erreseina bidezkoa izango da, Appstore edo Playstoren gure aplikazioa izarrekin puntuatu ahal izango da, 1 etik 5 era. Modu horretara ikusiko dugu ea Trynow bezeroen gustukoa den ala ez. Bi aplikazio hauetan izarren bidez puntuazioa txertatzeaz gain, idatzizko iruzkinak ere idatzi ahal izango dira, guk ere bertatik erabiltzaileen iradokizunak ikusi eta aztertu ahal izateko.

Gure taldekideoi noizean behin ebaluazio zabalagoak egitea gustatzen zaigunez, lana ondo gauzatzen ari garen ala ez ziurtatzeko, eta horregatik, webgunean bertan hilabete bukaeran inkesta batzuk argitaratuko ditugu, erabiltzaileek zintzotasun osoz erantzun dezaten.

Kanal guzti hauek erabiliz eta bururatu zaizkigun guztiak egoki funtzionatuz gero, geure proiektuak arrakastarako bidea jarraituko du zalantzarik gabe.

